



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, GIPUZKOAKO
JUDO ETA ELKARTUTAKO KIROL EN FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-
BATZORDEAK 2016ko URRIAREN 11n HARTUTAKO ERABAKIAREN
AURKA [REDACTED] JAUNAK JARRITAKO ERREKURTSOA BAIESTEN
DUENA**

Espediente-zenbakia: 26/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko urriaren 21ean, [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirol Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 11n hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa iritsi zen Kirol Justiziako Euskal Batzordera (aurrerantzean, batzordea).

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak adierazitako errekurtsoa izapidetzea eta, beraz, espedientea eskatu eta Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioari entzunaldia ematea erabaki zuen.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioak, bere hauteskunde-batzordearen bitartez, batzorde honen errekerimenduari erantzun dio, eta hauteskunde-prozesuari buruzko dokumentazioa eta alegazio-idazkia, 2016ko azaroaren 14koa, aurkeztu ditu.

Laugarrena.- Errekurtsu hau Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-prozesua zuzenbidera egokitzeari buruz jarritako errekurtsu multzo baten zati denez (22/2016, 25/2016, 26/2016, 28/2016 eta 30/2016 zenbakiko espedienteak) eta hauteskunde-batzordearen alegazioen hasierako idazkiak, 2016ko azaroaren 14koak, errekurtsu horietan proposatutako gai guztiei erantzuten ez zenez, eta, bereziki, 26/2016 zenbakiko espediente honi dagokion errekurtsuan sortutako alderdi jakin



batzuei buruzko informaziorik ematen ez zuenez, batzordeak bi aldiz eskatu dio informazio osagarri gehigarria hauteskunde-batzordeari, errekurtsua ebazteko behar diren judizio-elementu guztiak edukitzeko.

Informazio osagarria 2016ko azaroaren 22an eskatu zen lehenengo aldiz, eta errekerimendu horri 2016ko azaroaren 23an erantzun ziztaion.

Eta informazio osagarria jakinarazi zen bigarren eta azken aldia 2016ko azaroaren 28a izan zen, eta hauteskunde-batzordeak 2016ko azaroaren 29an erantzun zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-federazioen hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsuak aztertze eta ebazteko*»,

Bigarrena.- Errekurtsogileak, hots, [REDACTED] jaunak hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 11n hartutako erabakiaren aurkako errekurtsua jarri du. Erabaki horren bitartez, ezetsi egin zen egun horretan bertan jarritako errekurtsua aipatutako jaunak 2016ko urriaren 4ko erabakiaren bitartez batzar nagusirako kirolen estamentutik aurkeztutako hautagaitza ez onartzeari dagokionez. Ezespren hori errekurritutako erabakian honela justifikatzen da: «*hauteskunde-egutegian aurreikusitako epetik kanpo aurkeztu zelako*» eta, gainera, «*azaldutako oinarrien aurkako argudioa eman zuelako hauteskunde-batzorde honek egun horretan egin zen bileran, [REDACTED] jaunak jarritako errekurtsua aztertu eta ezetsi zuenean*».



Ondoren aztertuko den errekurtsio-idazkian alegatzen da, alde batetik, errekurtsioa hauteskunde-arautegiaren 25. artikuluan ezarritako epean jarri zela (2 egun baliodun); izan ere, hauteskunde-batzordearen 2016ko urriaren 4ko erabakia 2016ko urriaren 6an jakinarazi zitzaion bere klubari federazioaren helbide elektronikoaren bitartez. Erabaki horretan, beste gai batzuen artean, ebatzi zen batzar nagusirako kirolarien estamentutik hark aurkeztutako hautagaitza ez onartzea. Hortaz, kontuan hartuta hauteskunde-arautegiaren 5. artikulua arabera hauteskunde-egintza guztiak federazioaren egoitzan egin behar direla astelehenetik ostegunera eta, gainera, 2010eko urriaren 7a, ostirala, jaieguna izan zela Euskal Autonomia Erkidegoan, errekurtsioa 2016ko urriaren 11n aurkeztea epearen barruan zegoen.

Horrez gain, aipatzen da 2016ko urriaren 11ko Erabakiak ez diela erantzuten 2016ko urriaren 4ko Erabakiaren aurka interesdunak aurkeztutako errekurtsoko alegazioei (errekurtsio horren kopia bat erantsi da); izan ere, [REDACTED] jaunak aurretik aurkeztutako antzeko errekurtsioa ezesteko hauteskunde-batzordeak kontuan hartutako argudioak aipatu besterik ez du egiten.

Errekurtsogileak ez dakienez zer argudio erabili diren [REDACTED] jaunaren errekurtsioa ezesteko eta hauteskunde-batzordeak ez dituen ez espresuki adierazi bere argudioak, errekurritutako erabakia baliogabetzeko modukoa izan liteke arrazoiak azaltzen ez direlako.

Hirugarrena.- Espediente honetatik sortzen diren arrazoiak aztertu aurretik, aurrekarietatik eta hauteskunde-batzordeak igorritako espedientean azaltzen diren dokumentuetatik honako hau nabarmendu behar da:



1) [REDACTED] jaunak jarritako errekurtsoren urritasuna; izan ere, soilik justifikatzen du errekurtsoa dagokion epean aurkeztu dela eta hauteskunde-batzordean argudiatutako arrazoiak aipatzen ditu lurralde-federazioaren batzar nagusirako kirolen estamentutik aurkeztutako hautagaitza onartzea bidezkoa dela justifikatzeko (bere errekurtso-idazkiaren kopia bat aurkeztu du horretarako).

2) 2016ko urriaren 11ko hauteskunde-batzordearen erabakiaren urritasuna; izan ere, erabaki horretan, azalpen handirik eman gabe, errekurtsoa ezetsi egiten da epez kanpo aurkeztu delako eta [REDACTED] jaunaren errekurtsoren kasuan dauden arrazoi berengatik, baina arrazoi horiek ez dira zehaztu erabakian.

3) Azkenik, batzorde honek bi aldiz eskatu dio, hasieran emandako alegazio-izapideaz gain, errekurtso honi buruzko informazio zehatza hauteskunde-batzordeari, informazioa eskatzearen xede ziren izatezko eta eskubidezko gaiak zehazteko, baina jasotako informazioa orokorregia da eta ez zaie eskatutako gai guztiei erantzun, eta erantzun denean emandako justifikazioak batzuetan ez dauka arrazoirik batzorde honen irizpidearen arabera.

Batzorde honek hartuko duen erabakia bere osotasunean ulertu ahal izateko beharrezkoak diren hasierako zehaztasun horiek egin ondoren, aztertuko dugun lehenengo gaia da hauteskunde-batzordeak bete ote duen hauteskunde-arautegiaren 20. artikuluan ezarritakoa –eduki hori Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 23.2 artikuluan biltzen da, zeinaren bitartez euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen diren–. Artikulu horretan honako hau ezatzen da (letra lodiak eta azpimarratuak guk jarri ditugu):



“Hauteskunde errolda atalka antolatuko da, estamentuka.

*Pertsona fisiko bakoitza atal batean inskribatuta egongo da. Inor ezin da atal batean baino gehiagotan inskribatuta egon. **Pertsona batek hainbat estamentutan baldin badauka federazio-lizentzia, bat aukeratu beharko du errolda behin-behineko gisa onartu aurretik.** Egoera horretan dagoen pertsona batek ez badu aukeraketa hau berariaz egiten, automatikoki geratuko da lizentzia kopururik txikiena duen estamentuari atxikita.*

Hauteskunde-batzordeak ez du bermatu eskubide hori baliatu dela lizentzia hainbat estamentutan zeukaten pertsonak errolda behin-behinean onartu aurretik, eta ezin izan du bermatu hauteskunde-egutegian ezarritako epeak laburregiak direlako; izan ere, egun berean (2016ko irailaren 22a) eta etenik gabe hautatu du lurralde-federazioaren batzar nagusiak hauteskunde-batzordea, hauteskunde-organo hori eratu da, estamentuetako errolda behin-behinean onartu da eta hauteskunde-prozesuari hasiera eman zaio onartutako hauteskunde-egutegiaren arabera; hori guztia, hauteskunde-batzordearen bilkura berean.

Hauteskunde-batzordearen 2016ko azaroaren 22ko eta 28ko alegazio-idazkietan adierazten da hauteskunde-arautegiaren 20. artikuluaurreikuspena okerra dela, kontuan hartzen badugu hauteskunde-arautegi horrek berak (26. artikulua) bost egun naturaleko epea ematen diela erreklamazioak egiteko federatu guztiei, eta epe horretan federatuek aldatu ahal izango dutela erroldan sartzea hainbat estamentutan sartuta badaude eta adierazten dela, zentzu horretan, pertsona batek estamentu batean baino gehiagotan baldin bazeukan federazioaren lizentzia behin-behineko erroldetan azaltzen zela estamentu horietako bakoitzean eta estamentu horietako bat aukeratu ez zenean lizentzia kopuru txikiena zuen estamentuari atxikitzen zitzaiola.



Hauteskunde-batzordearen argudioen aurka, adierazi behar da hauteskunde-arautegiaren 20. artikuluaurreikuspena ez dela okerra, alderantziz, arautegiko edukia hain argia da ezen bere literaltasunetik ondorioztatzen den interpretazioa baino ez baitu eskatzen, eta hori egiaztatzen da Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 23.2 artikuluan ere aurreikuspen bera dagoelako.

Beste gauza bat da bi aginduetan –hauteskunde-arautegian eta 2012ko otsailaren 19ko Aginduan– aurreikusitako aukera ezin izan dela gauzatu errekurtsogilearen kasuan, onartutako hauteskunde-egutegiaren ondorioz ezinezkoa zelako aukera hori egikaritzea behin-behineko erroldak onartu aurretik.

Bestalde, ez da egia –errekurtsogilearen kasuan behintzat– hauteskunde-batzordeak onartutako behin-behineko erroldetan hainbat estamentutakoak ziren pertsonak errolda horietan agertzen zirela eta aukera hori egikaritzen ez zutenean soilik (behin-behineko erroldari buruzko erreklamazioak egiteko epean) atxikitzen zitzaizkiola automatikoki –behin betiko erroldetan dela ulertzen da– lizentzia kopuru txikiena zuen estamentuari.

██████████ errekurtsogile jaunaren kasuan ez da hori gertatzen, teknikarien estamentuaren behin-behineko erroldan soilik azaltzen baita, kirolarien erroldan ez delako azaltzen, nahiz eta hauteskunde-batzordeak ez duen eztabaidatu pertsona horrek federazioaren lizentzia ere bazuela estamentu horretatik. Hau da, hauteskunde-batzordeak teknikarien behin-behineko erroldan sartu du ██████████ jauna, eta aurretik ez dio aukerarik eman kirolarien estamentuan azaltzeko.



Egia da [REDACTED] jaunak erabil zezakeela behin-behineko erroldaren aurka erreklamazioak jartzeko epea teknikarien estamentua ez zen beste estamentu batean azaltzen zelako aukera zuela adierazteko, baldin eta horretarako baldintzak betetzen bazituen, baina aukera hori egoteak ez du hauteskunde-batzordea salbuesten hauteskunde-prozesuari buruz dituen betebeharretatik eta prozesu hori izapidetu bitartean federatuek dituzten eskubideak mugatzetik.

Hortaz, egiaztatu da Gipuzkoako lurralde-federazioaren hauteskunde-batzordeak lehenengo ez-betetzea izan duela, eta ondorengo oinarrietan aipatuko diren ezbeharrekin lotuta, justifikatzen da [REDACTED] jaunak jarritako errekurtsoa baiestea eta errekurtsogilea kirolarien estamentuan sartzea, baldin eta hori aukeratzen badu, egoera horri atxikitako eskubide guztiekin. Eskubide horien artean estamentu hori dela medio batzar nagusirako hautagaitzara aurkeztu ahal izateko eskubidea dago.

Laugarrena.- Errekurtsoa jartzeko bigarren arrazoia –22/2016 zenbakiko espedientean azaldu denaren antzekoa– hauteskunde-arautegia ez hedatu izana eta ez argitaratu izana da. Errekurtsogileak bere kirol-klubetik lortu behar izan zuen arautegi hori, eta klub horrek, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistrotik (federazioak ez baitzion araudi hori eman federazioaren egoitzan eskatu zuenean). Hauteskunde-arautegi hori 2016ko irailaren 22aren ondoren igo zen Internetera, hori ere berandu.

22/2016 zenbakiko espedientea ebatziz hartutako erabakian azaldu denez, hauteskunde-prozesuaren hedapenari buruzko betebeharrak Gipuzkoako lurralde-federazioaren hauteskunde-arautegiaren 28.-30. artikuluetan daude bilduta; aurreikuspen horiek, halaber, jasota daude oso antzeko moduan Euskal kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko



irizpideak finkatzen dituen Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 34.-38. artikuluetan.

Lurralde-federazioaren hauteskunde-erregelamenduaren 28. artikuluan ezartzen da hauteskunde-batzordeak federazioko kide guztiek hauteskunde-prozesuaren berri izan dezaten eta dagozkien eskubideak erabil ditzaten bermatu beharko duela.

Zentzu horretan, Erregelamendu bereko 29. artikulua honako hau dio:

«Federazioak derrigorrez jarri behar ditu Gipuzkoako federazioaren eta Euskadikoaren iragarki taulan hauteskunde prozesuari buruzko dokumentu eta erabaki guztiak.

*Federazioaren egoitzan hautesleen eskura jarriko dira hauteskunde-prozesuan diren agiri garrantzitsuenen kopiak, behar adinakoak, esaterako egutegi, errolda eta **hauteskunde-erregelamenduarenak** (...).*».

Bestalde, 30. artikuluan hauteskunde-prozesuaren hedapenari buruzko erregulazioa osatzen da, honako hau esaten baita:

*«Federazioak www.kirolak.net webgunean argitaratuko ditu hauteskunde-erroldaren, -egutegiaren, **-arautegiaren** eta hauteskunde-batzordeen ebazpenen interes orokorreko testuak (...).*».

Lurralde-federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko azaroaren 14ko idazkiaren bidez igorritako alegazioen arabera, hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 22an hartutako erabakiak, hauteskunde-egutegia eta behin-behineko erroldak onartu ziren egun berean, hau da, 2016ko irailaren 22an argitaratu ziren federazioaren egoitzan eta www.kirolak.net webgunean.



Hala eta guztiz ere, bidalitako alegazioetan ez zen hauteskunde-arautegiaren argitalpenari buruzko aipamenik egin, eta hauteskunde-prozesuaren oinarriko dokumentu horri dagokionez, honako azalpen orokor hau eman zen: *«hauteskunde-arautegia federatu guztien eskura zegoen federazioaren egoitzan, ezin baitzuen beste era batera izan»*.

Beraz, egiaztatu zen ez zela argi eta garbi adierazi hauteskunde-arautegia 2016ko irailaren 22an argitaratu zela eta federazioko kideen eskura jarri zela, derrigorrezkoa den bezala, eta hauteskunde-espeditentean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, esan daiteke, aitzitik, arautegi hori hauteskunde-prozesua hasi ondoren hedatu zela eta federatuen esku jarri zela, eta errekurtsogileak bera kide den Donostiako Judo Klubaren bitartez eskuratu zuela araudi hori eta klubak, aldi berean, Eusko Jaurlaritzari dagokion Erregistro publikotik lortu behar izan zuela dokumentua, federazioak ez baitzion arautegi horren kopiarik ematen errekurtsogileari.

Kontuan hartuta alegazioak argiak ez direla, batzordeak, aurrekarietan adierazi denez, bi errekerimendu gehigarri egin ditu hauteskunde-batzordeak argiago eta zehatzago zehazteko hauteskunde-arautegia hauteskunde-prozesua hastea erabaki zenetik –2016ko irailaren 22tik– aurrera ote zegoen federatuen esku eta egun horretan bertan argitaratu ote zen hauteskunde-arau hori www.kirolak.net webgunean.

Hauteskunde-batzordeak errekerimendu horiei 2016ko azaroaren 22ko eta 28ko idazkien bitartez erantzun die, baina proposatutako gai zehatzei emandako erantzunak orokorrak eta azalpen zehaztugabeak dira, ez baitu behar adina zehaztu galdetu zaiona.

Ildo horretan, hauteskunde-batzordeak bere idazkietan adierazi du hauteskunde-arautegia 2014. urtean onartu zuela Gipuzkoako Foru Aldundiak



eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu zela; horregatik, hauteskunde-arautegi hori federatu guztiek ezagutzen zutela data horretatik aurrera eta federazioaren egoitzan nahiz Kirol Erakundeen Erregistroan kontsulta zezaketela.

Erantzun horrekin ez da aipatzen hauteskunde-arautegiak eta Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduak betebeharrak jakin batzuk, arestian definitu direnak, ezartzen dituztela hauteskunde-arautegia hauteskunde-prozesuan hedatzeari eta argitaratzeari buruz, eta ezin dela egiaztatu betebeharrak horiek betetzen direla federatu guztiek hauteskunde-arautegia 2014. urteaz geroztik ezagutzen zutela esanez orokorrean.

Hauteskunde-arautegia www.kirolak.net webgunean argitaratzeari dagokionez, hauteskunde-batzordeak soilik adierazi du webgune horretan jarri zela, baina ez du zehaztu, batzorde honek behin eta berriz galdetu arren, 2016ko irailaren 22an edo geroagoko beste egunen batean argitaratu zen.

Hauteskunde-batzordeak ez dio batzorde honi lagundu gertakariak argitzen eta egin zaizkion galderei erantzuten, eta hori gaitzesgarria izateaz gain, ondoriozta dezakegu (Prozedura Zibilaren Legearen 304.-307. artikuluetan prozesu judizialeterako aurreikusten den bezala) errekurtsogileak adierazten dituen gertakariak egia direla, hauteskunde-batzordeak ez zituela hauteskunde-arautegia hedatzeko eta argitaratzeko betebeharrak bete eta dokumentu hori ez zegoela behar zen egunean, hots, 2016ko irailaren 22an argitaratuta www.kirolak.net webgunean.

Gure ustez, egiaztatuta dago hauteskunde-arautegia hedatzeko eta argitaratzeko betebeharrak horiek ez direla bete, baina ez-betetze horretatik etorriko diren ondorioak kasuz kasu aztertu beharko dira, eta hauteskunde-egintzak soilik deuseztatuko dira ez-betetze horrek benetako defentsa-gabezia



materiala eragin badu eta ez-betetzea egin arren ezeztatu ez diren hauteskunde-egintzak gorde egingo dira.

Kasu honetan ikusten da defentsa-gabeziaren egoera hori dagoela; izan ere, hauteskunde-batzordeak ez zuen bermatu hauteskunde-arautegiaren 20. artikuluan aurreikusitako aukera baliatzeko eskubidea errolda behin-behineko gisa onartu aurretik, eta, gainera, oraingo errekurtsogileak ezin zuen jakin zer baldintzatan egin behar zuen aukera hori hauteskunde-arautegia ez bada hedatu eta argitaratu.

Bosgarrena.- Aztertuko dugun azken gaia hauteskunde-egutegian ezarritako epeak eta izapideak ez betetzeari buruzkoa da, eta gai horrekin lotuta, [REDACTED] jaunaren errekurtsioa desagokia den ala ez.

Atal honetan ez dugu berriro aipatuko hauteskunde-arautegiaren 20. artikuluan aurreikusitako aukera egikaritzeko beharrezkoak diren izapideak bete diren ala ez eta estamentu bakoitzaren behin-behineko eta betiko erroldak eratu diren, dagoeneko azaldu baitugu, errekurtsogilearen kasuan, aipatutako aukeraren eskubidea ez dela behar bezala bermatu batzordearen ustez.

Hauteskunde-egutegian aurreikusitakoa kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu hauteskunde-errolda 2016/09/28an onartu zela behin betiko eta egun horretan bertan ireki zela batzar nagusietarako hautagaiak aurkezteko epea.

Hautagaiak aurkezteko epea 2016/10/04an bukatu zen. Data horretan onartu ziren, halaber, aurkeztutako hautagaitzak behin-behinean, eta erreklamazioak egiteko epea ireki zen.

Erreklamazioak egiteko epe hori 2016/10/06an bukatu zen eta data horretan ebatzi ziren aurkeztutako erreklamazioak eta batzar nagusirako hautagaiak izendatu ziren behin betiko.



Hauteskunde-batzordeak igorritako espedientean jasota dago (60.-62. folioak) batzar nagusira aurkeztutako hautagaiak onartu zirela, baita kirolarien estamentutik beste pertsona batzuen artean, [REDACTED] jaunak aurkeztutako hautagaitza ez zela onartu ere, eta honako arrazoi hau eman da ez onartzeko:

«Ezin dira onartu hautagai horiek estamentu batean baino gehiagotan azaltzen zirelako hauteskunde-eroldan, eta estamentu bat aukeratu behar zutelako errolda behin-behineko gisa onartu aurretik, indarreko hauteskunde-arautegiaren 20. artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera; izan ere, artikulua horrek berak agintzen du pertsona bat egoera bikoitz horretan badago eta aukeratzeko eskubidea egikaritzen ez badu lizentzia kopuru txikiena duen estamentuari atxikiko zaiola, eta horixe egin zen hauteskunde-batzordeak errolda onartu ondoren, teknikarien estamentuan sartu baitzituen. Horregatik, kirolarien estamentua ordezkatzeko duten hautagaitza horiek ezin dira onartu, hauteskunde-batzordeak teknikarien estamentuan sartu zituelako aipatutako artikuluan agindutakoari jarraikiz».

Ikus daiteke hauteskunde-batzordeak errekurtsogilea kirolarien estamentuko kide dela ukatzeko erabiltzen duen justifikazioa dela, hain zuzen ere, errekurtsogileak ez betetzea hauteskunde-arautegiaren 20. artikuluan aurreikusitako betebeharra, hau da, estamentu hori ez aukeratzeko behin-behineko errolda onartu aurretik, baina hori paradoxikoa da; izan ere, hauteskunde-batzordeak batzorde honi igorritako alegazioetan ukatu egiten du hauteskunde-arautegiaren 20. artikulua aplikagarritasuna –okerreko eduki bat duelako– eta bere egintzen aurka adierazten du aukera behin-behineko erroldari erreklamazioak egiteko epean egikaritu behar zela, suposatzen da errolda horretan federatu bakoitza lizentzia zeukan estamentu guztietan sartuta egongo zela (ikus duzugu eta berriro diogu zirkunstantzia hori ez zela gertatu



██████████ errekurtsogile jaunaren kasuan, behin-behineko erroldan teknikarien estamentuan soilik sartu baitzen ofizioz, ez, ordea, kirolarien estamentuan, nahiz eta federazioaren lizentzia izan estamentu horretatik).

Baina, horretaz gain, hauteskunde-batzordearen 2016ko urriaren 4ko erabakian ez da zehazten batzar nagusira aurkeztutako hautagaitzen onarpena behin-behinekoa ala behin betikoa den.

Hauteskunde-egutegia aztertu ondoren, uler liteke aurkeztutako hautagaitzen behin-behineko onarpenaren aurrean gaudela, eta horren ondoren, erreklamazioak egiteko epe bat zegoela, nahiz eta 2016/10/04ko erabakian ez aipatu epe hori ireki zela, eta erreklamazioak 2016/10/06an ebatzi zirela, hots, batzar nagusirako hautagaiak behin betiko izendatu ziren egunean.

Baina aurrekoa susmo bat besterik ez da; izan ere, hauteskunde-batzordeak igorritako hauteskunde-espeditentean ez da azaltzen organo horrek 2016/10/06an inolako erabakirik hartu zuenik batzar nagusirako hautagaitzak behin betiko onartzeko eta izendatzeko, hauteskunde-egutegian aurreikusitakoa aztertu ondoren ezinbestekoa zena. Horri gehitu behar zaio, hala badagokio, 2016/10/06ko erabaki horren aurka jar lezakeela dagokion hauteskunde-errekurtsoa ██████████ jaunak.

Eta hauteskunde-errekurtsoa bi egun balioduneko epean jarri beharko balitzaio existitzen ez den 2016/10/06ko erabakiaren aurka, errekurtsu hori jartzeko epea 2016ko urriaren 11n bukatuko litzateke, errekurtsogileak adierazi duen bezala, urriaren 7a jaieguna zelako autonomia-erkidego honetan eta urriaren 8a eta 9a egun baliogabeak zirelako (larunbata eta igandea).



Azaldutako arrazoi guztiak direla medio, bidezkoa da [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartuko Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa baiestea.

Errekurtsoa baiesteak hauteskunde-prozesuaren atzeraeragina dakar errekurtsogileak erabakitzeko teknikarien estamentuan edo kirolarienean sartu nahi duen, eta bigarren kasu honetan, nahi izanez gero, batzar nagusirako bere hautagaitza aurkeztu ahal izatea estamentu horretatik, baina bozketak estamentu horretan bakarrik errepikatuko dira eta errekurtsoa baiesteak eraginpean hartzen ez dituen gainerako egintzak bere horretan utziko dira.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 11n hartutako erabakiaren aurka [REDACTED] jaunak jarritako errekurtsoa baiestea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta



Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998
Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea